Andoaingo Udala

EUSKARA ZERBITZUA

Kodea: 2022AKM80001

Baldintza Teknikoen Plegua

Andoaingo Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2018-2025) eta plan horri lotutako gainerako planak eta ekimenak diseinatu eta garatzeko aholkularitza eta laguntza teknikoa emango dituen zerbitzua kontratatzea					
Kontratu mota	**Zerbitzuak**	**Prozedura**	**Irekia**	**Esp. Kodea**	**2022AKM80001**

1.- Xedea

Andoaingo Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Planari (2018-2025) lotutako gainerako planak eta ekimenak diseinatu eta garatzeko aholkularitza eta laguntza teknikoa emango dituen zerbitzua kontratatzea.

Andoaingo Udaleko Udalbatzak, Osoko Bilkuran batzartuta, 2018ko abenduaren 3an onartu zuen VI. Plangintzaldiari (2018-2022) dagokion Andoaingo Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (EEPLA). Horretaz gain, 2020ko ekainaren 25ean izandako ohiko batzarraldian, aho batez, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2020-2025) onartu zuen, eta honen zatitzat hartu behar da aurretik onetsitako EEPLA 2018-2022, bera baita ESEPeko arloen artean dagoen Administrazio esparruari dagokion atala.

Urtero ESEPen jasotan dauden helburuak lortzeko ekintza plana diseinatu egiten da, tartean EEPLAri dagokiona ere. Horretaz gain, kontuan hartu behar da 2022 urte honetan bukatzen dela VI. Plangintzaldiari dagokion EEPLA, eta bost urteotan eginikoaren balorazioa egin beharko dela, nahiz hortik abiatuta, hurrengo bost urteetarako Plana egituratu. Era berean, BIKAIN kalitate ziurtagiria eskuratzeko bidean jartzea da gure asmoa, horretan lehenengo urratsak ematea eta gure lansaileko teknikariak metodologia horretan formatzea.

2.- Zerbitzuaren ezaugarriak

- EEPLA eta ESEPerako kudeaketa orokorreko aholkularitza.
- Adierazleen neurketak diseinatu, egin eta ustiatzea.
- Bileren eta saioen prestaketan laguntzea
- Edukiari begirako aholkularitza
- Zaintza teknologikoa
- BIKAIN kalitate ziurtagiria lortzeko bidean laguntzea

Planarekin batera, egingo diren estatistika, inkesta eta datu-bilketa guztietan sexu-aldagaia sistematikoki sartuko da. Era berean, estatistikako eragiketetan adierazle berriak ezarri eta txertatuko dira, hain zuzen ere, emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, jomuga eta beharretan dauden aldeak identifikatzeko. Horrela, ekintzen diseinuen aurretik, emakume eta gizonen arteko berdintasun ezak ez sortzeko hainbat mekanismo ezarriko dira.

3.- Bestelako ezaugarriak edo baldintzak:

Zerbitzu kontratuaren esleipendunak zerbitzua zuzenean emango duen teknikari bat izendatuko du, zeinak Andoaingo Udalaren Euskara Zerbitzuaren bulegoan bertan egin beharko duen bere lana gutxienez astean bi egunez eta egun bakoitzeko lau ordu eta erdiz, urteko hamaika hilabetetan, besteak beste kontratua betetzeko zereginekin lotutako jarraipen bilerak, askotariko lan saioak eta abar udaletxean bertan egin behar baitira. Teknikariaren gutxieneko presentzia hori kontsideratu behar da enpresa esleipendunak horrezaz gain eskaini dezakeen laguntza teknikoaren kalterik gabe.

Era berean, teknikariaren gutxieneko presentzia horrek ez du ekarriko, inolaz ere, udalaren egituran parte hartzerik. Ondorioz, langile hori erabat independientea izango da bere lana garatzean.

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

ESKU6875813e-9cb6-4c0d-bf97-16680738b81e

4.- Kontratuaren finantzazioa.
Kontratuaren prezioa ordaintzeko kreditua 2022ko aurrekontuaren *Euskararen Erabilera* izena duen partidan aurreikusirik dago. Era berean, datozen ekitaldietako aurrekontuetan beharrezko diren kredituak erreserbatzeko konpromisoa hartzen du aurrekontuen arloan eskuduna den organoak.

5.- Kontratuaren iraupena.
Kontratua **2 urteko epeaz** ematen da, dagokion kontratu administratiboa sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

6.- Lizitazioaren prezioa.
Lizitazioaren oinarrizko prezioa (aurrerantzean, LOP) edo kontratuaren aurrekontua (bi urteetakoa) 41.322 eurokoa izango da (urteko 20.661 eurokoa, alegia), zeinari %21eko BEZari dagozkion 8.677,62 euro gehitu behar zaizkion. Guztira, beraz, 49.999,62 euro bi urtean (urte bakoitzeko 24.999,81 euro), BEZ barne. Lizitatzaileek behin betiko prezioa gutxitu dezakete.

Xede guztietarako ulertuko da, eskaintza ekonomikoetan eta esleipenaren prezioan jasota daudela zerga guztiak eta zerbitzua emateak esleipendunari eragindako kontzeptu eta gastu guztiak ere. Kasu orotan adieraziko da, partida independente gisa, Administrazioak jasan beharko duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa, hala balegokio.

7.- Eskaintzak aurkezten dituzten enpresak, hautaketa irizpideak, dokumentazioa eta eskaintzak aurkeztea.

- ✓ Euskara gaitasunari dagokionez, lizitatzaileak kontratua burutzeko izendatzen dituen langileek egiaztatu beharko dute Hizkuntzen Europako erreferentzi Marko Bateratuko C1 maila badutela.

- ✓ Guztira, 100 punturen araberako balorazioa egingo da:
  - Proposamen teknikoa: 25 puntu.
  - Lan esperientzia udaletxeetan: 15 puntu
  - Proposamen ekonomikoa: 60 puntu.

- ✓ **Proposamen teknikoaren (25 puntu) baloraziorako irizpideak:**

  - Lan proiektua:
    - Proiektuaren garapena. (5 puntu)
    - Edukien definizioa eta zehaztapen maila. (5 puntu)
    - Jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarraibideak. (5 puntu)
    - Andoaingo egoerari egokitzapena. (5 puntu)
  - Lizitatzaileek aurkezten dituzten ikuspuntu eta proposamen berritzaileak:
    - ESEP barruan lizitatzaileak beste udaletan landutakoak. (2 puntu)
    - EEPLA barruan lizitatzaileak beste udaletan landutakoak. (2 puntu)
    - Lizitatzaileak landu ez dituen arren, aplikagarri baloratzen dituen proposamenak. (puntu 1)

ESKU6875813e-9cb6-4c0d-bf97-16680738b81e

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

- ✓ **Zerbitzua emango duen teknikariaren lan esperientziaren (15 puntu) baloraziorako irizpideak:**
  - Udaletxeetan Euskara Sustatzeko Erabilera Planetan (ESEP) aholkularitza lanean izandako esperientzia.
  - Udaletxeen Euskararen Erabilera Planetan (EEPLA) aholkularitza lanean izandako esperientzia: **5 puntu**
  - BIKAIN, Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren kudeaketan udaletxeetan izandako esperientzia 2018tik hona: **5 puntu**

Eginbidea: Nik, idazkariak, egiten dudana aditzera emateko Baldintza Administratibo Berezien agiri hau **Tokiko Gobernu Batzarrak** onartu duela, Alkatetzak eskuordeturik, **2022/03/04ean** egindako bilkuran hartutako erabaki bidez.

Diligencia: Que la extiendo yo, el Secretario de la Corporación, para hacer constar que el presente Pliego da Cláusulas Administrativas Particulares ha sido aprobado mediante acuerdo de **la Junta de Gobierno Local**, por delegación de Alcaldía, de fecha **4/03/2022**.

Idazkaria / El Secretario

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU6875813e-9cb6-4c0d-bf97-16680738b81e**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910***